# TARIFAK

Hezkuntza Departamentuak ezarritakoaren arabera aplikatzen dira tarifak.
Ezaerri den gehieneko hileko tarifa da 335 € (jantokiarekin) eta 240 € (jantokirik gabe). Gutxieneko hileko tarifa da 125 € (jantokiarekin) eta 41 € (jantokirik gabe). Tarifa horiek murriztu eginen dira familia unitate- ko kideen per capita errentaren arabera. Honako taula honetan jaso dira 2016-2017 ikasturtean ordaindu beharreko tarifak:

| PERENTA PER CAPITA | | | | |
|---|---|---|---|---|
| DESDE | A | ESCOLARIDAD | COMEDOR | ESCOLARIDAD + COMEDOR |
| Mayor de | 15.000 | 240 | 95 | **335** |
| 12.400,01 | 15.000 | 217 | 95 | **312** |
| 10.700,01 | 12.400 | 180 | 95 | **275** |
| 9.300,01 | 10.700 | 150 | 95 | **245** |
| 7.980,01 | 9.300 | 112 | 95 | **207** |
| 6.650,01 | 7.980 | 96 | 84 | **180** |
| 5,500,01 | 6.650 | 69 | 84 | **153** |
| 4.500,01 | 5.500 | 55 | 84 | **139** |
| Menor o igual a | 4.500 | 41 | 84 | **125** |

Bi seme-alaba edo gehiago dituzten familiek %50erainoko deskontua izanen dute bigarren haurragatik da- gokien eskolatze tarifan, betiere gutxieneko tarifatik behera jaitsi gabe. Hirugarren seme-alabak ere gutxieneko eskolatze tarifa ordainduko du.

Bi anai-arrebek jantokia erabiltzen dutenean, lehenengoak errentari dagokion tarifa ordainduko du, eta bigarrenari gutxieneko tarifa egokituko zaio.

Matrikula egiterakoan ezarriko dira tarifak eta ezin izango dira aldatu ikasturte osoan. Ikastetxeak 208 egunetan irekita egoteagatik ordaintzen dira 10,6 hileko.

Familia bakoitzak ordaindu beharreko hileko tarifak alde batera utzita, toki entitate bakoitzak nahitaez ordaindu beharreko matrikulazio kuota ezartzen du, bermetzat hartuko dena eta matrikula egiterakoan ordaintzekoa. Barañaingo Udalaren hasierako kuota: 120 €.

Urteko per capita errentatzat hartuko da familia unitatearen zerga-oinarria (pertsona fisikoen errentaren gaineko 2015eko zergaren aitorpenetik) zati familiako kide guztien kopurua matrikula egiterako unean.